



10. AKTA

2003ko irailaren 4ean ospatutako GOBERNU BATZORDEA.

TOKIA: Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean.

DATA: bi mila eta hiruko irailaren laua.

ETORRIAK:

Lucía Querido Noceti a.
Lore Suárez Linazasoro a.
Jesús M^a García Garde j.
Xabier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño andre alkatea.

Lehenengo deialdian bildu dira Izaskun Gómez Cermeño andre alkatearen presidentzian goian aipatu zinegotziak, bertan izanik Joseba Belaustegi Cuesta Idazkari jauna horretarako egindako deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko.

Lehendakaritzak konstataturik behar hainbat partaide bildu direla Gobernu Batzordea ospatzeko, irekiztat eman du batzarraldia 8:30etan ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeko.

1.- Aurreko batzarraldiko akta, 03-07-24koa, irakurri eta onartzea.

Atalburuan aipatzen den akta bertakoen kontsiderazioan jarririk, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea bere osoan eta dagokion Akta-liburuan transkribatzea.

2.- Trintxerpeko “Azkuene-Ulia-Errenteriaren Urbanizazioa” obraren Segurtasun eta Osasun gehi Kalitate Kontrolaren 2. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka. 2.

Obra: Trintxerpeko “Azkuene-Ulia-Errenteriaren Urbanizazioa” obraren Segurtasun eta Osasun gehi Kalitate Kontrolaren 2. ziurtagiria.



Obra-Zuzendariak: Iñaki Ormazabal (Udal Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (2.834,60 euro).

Indarreango Udal aurrekontuaren 738/03 Disposamenduaren kargura.

3.- Trintxerpeko “Azkuene-Ulia-Errenteriaren Urbanizazioa” obraren 2. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka. 1.

Obra: Trintxerpeko “Azkuene-Ulia-Errenteriaren Urbanizazioa”.

Obra-Zuzendariak: Iñaki Ormazabal (Udal Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: LAUROGEITA HAMASEI MILA ZORTZIEUN ETA HOGAITA HAMASEI EURO ETA HOGEITA BOST ZENTIMO (96.836,25 euro).

Indarreango udal-aurrekontuko 367/03 eta 368/03 Disposamenduen kargura.

4.- Antxo Iparreko C-1 Hiri Eremuaren Berrurbanizazioa (C-8 Fasea).

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: 2.

Obra: Antxo Iparreko C-1 Hiri Eremuaren Berrurbanizazioa (C-8 Fasea).

Obra Zuzendariak: Asmatu, S.A. – Joan Karlos Lapazaran Izargain (Arkitektoa).

ARKAITZA, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: LAUROGEITA BAT MILA LAUREHUN ETA HEMEZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMO (81.418,61 euro).

Indarreango udal-aurrekontuko 342/03 eta 343/03 Disposamenduen kargura.

5.- Gizarte Larrialdiko Diru Laguntzetan modifikazioak.

Ikusirik 2003ko abuztuaren 6 eta 7ko Gizarte Zerbitzuen Arduradunak aurkeztutako proposamenak Gizarte Larrialdiko Diru Laguntzen Modifikazioez Udalaren EJ-2/03 eta 2/03 proposamenei dagozkienak hurrenez hurren, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Gizarte Larrialdiko Diru Laguntzak modifikatzea Udalaren EJ-2/03 eta 2/03 proposamenei dagozkienak espedientean agertzen diren onuradunenak eta aipatzen diren zioak direla eta, adierazten diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu inporteak Gizarte Larrialdiko partidari sartzeari.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzako Sailari ematea.

6.- 2002/2003 ikasturtean euskara ikasi duten pasaitarrei subentzioak.

Gaia mahai gainean geratu da espedientea dokumentatu eta osatzeko subentzioa emateko aplikatu behar den arautegian eskatutako betebeharrak ziurtatzeko.

7.- “Familien bidez euskara transmititzeko” programari beka.

Gai hau mahai gainean geratu da espedientea dokumentatu eta osatzeko subentzioa emateko aplikatu behar den arautegian eskatutako betebeharrak ziurtatzeko.

8.- Ondare erantzukizunaz hainbat erreklamazio.

A) Emankor, Gestión Integral de Siniestros, S.L.-k egindako ondare erreklamazioa Errenteria kaleko 3an gertatu diren kalteak direla eta Ulia etorbideko 17 eta 19an euri-urak biltzeko sareko tapaki bat libratu delako.

Ikusirik EMANKOR, Gestión Integral de Siniestros, S.L.-k aurkeztu duen idazkia BIHARKO ASEGURADORA-k jakitera eman diela Errenteria kaleko 3ko bere aseguratuak jasan dituzten kalteen espedientea 2002ko abuztuaren 25ean beren komunitateak jasan dituztenak, Ulia etorbideko 17 eta 19an euri-urak biltzeko sareko tapaki bat libratu zelako, kalteen balorazioak 132,30 euroko kan-



titatea ematen duelarik, eta kontuan izanik Komunitateko aseguratuek etxebizitzaren titularrak direla Komunitateko gastuen %88,40an, erreklamazioaren batura 116,95 eurokoa izanik.

Ikusirik 2002ko abuztuaren 24, 25 eta 26an Bizkai-Gipuzkoetan aparteko euriteak izan zirela, Pasaiako herrian aparteko ondorioak izanik, eta Eusko Jaurlaritzak Dekretua publikatu zuela laguntza bereziak artikulatzeko kalteen ondorioa zerbait leundu nahirik, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Aurkeztutako erreklamazioa gaitzestea halabeharrezko indarraren kausa aplikatu behar delako.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekursoekin.

Dena dela, ALLIANZ, Seguros Udalaren Aseguru Konpainiaren datuak bidaliko zaizkio berarekin harremanetan sartu nahi balu ere.

B) Mirari Bilbao Azkue andreak formulatu ondare erreklamazioa Euskadi etorbideko 3an 2003ko maiatzaren 22an erori zelako espaloian irekitako zanga bat estaltzen zuen tapaki batekin estropozo egin zuelako.

Ikusirik **MIRARI BILBAO AZKUE ANDREAK** formulatu erreklamazioa Euskadi etorbideko 3an 2003ko maiatzaren 22an erori zelako Informazioko panelak jartzeko espaloian irekitako zanga bat estaltzen zuen tapaki batekin estropozo egin zuelako eta ikusirik aurrekariak eta gainerako dokumentazioa espedientean dagoena, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- **MIRARI BILBAO AZKUE** andreak formulatu erreklamazioa gaitzestea hurrengo fundamentuetan oinarrituta:

1.- Egokitutako seinalizaioak ongi betetzen ditu kaleetako obrak seinalatzeko Pasaiako udalak erabakitako betebeharrak (1990eko maiatzaren 11ko G.B.O.), eta hain zehazki ere bertako 28. artikulua.

2.- Kalteak ez dira izan eraginak Administrazioak emandako aginduren bat tarteko, ezta proiektuaren okerren bat izan dela eta.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkioken errekursoekin.

Kasu balitz, enpresa kontratistari erreklamatu beharko dio –Guillermo Irastorza- helbidea Oiartzun, Karrika auzoa, Egun Sentia baserria, eta/edo jurisdikzio zibilean.

C) Félix Jiménez Billales jaunak egindako ondare erreklamazioa bere jabetzako SS-2748-T matrikuladun ibilgailuan eragindako kalteak direla eta udal-enplegatu batek manipulatu zuen edukiontzi batekin 2003ko martxoaren 24an zakarrontziaren kamioia hustutzen ari zelarik.

Ikusirik **FELIX JIMENEZ BILLALES jaunak** egin erreklamazioa bere jabetzako **SS-2748-T** matrikuladun ibilgailuan eragindako kalteak direla eta udal-enplegatu batek manipulatu zuen edukiontzi batekin **2003ko martxoaren 24an** zakarrontziaren kamioia hustutzen ari zelarik, Eskalantegi kalean, eta ikusirik Udal Zerbitzuen Sailak luzatu txostena aipatu egintzak baieztatuz, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R E A B A K I D U

LEHENENGO.- FELIX JIMENEZ BILLALES jaunari 58,55 euro ordaintzea Caja Rural de Navarra delakoan duen 3008-0149-0-3-01-001585-64 kontu korrontean.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkioken errekursoekin.

D) Alberta Garbizu Fernández andreak egin ondare erreklamazioa 2002ko abenduaren 18an erori zelako Arrandegi kaleak Terranovarekin egiten duen gurutzearen parean.

Aurkezturik **ALBERTA GARBIZU FERNANDEZ andreak** Ondare Erantzukizunaren erreklamazioa 2002ko abenduaren 18an erori egin zelako Arrandegi kaleak Terranovarekin eratzen duen gurutzean; kontuan izanik erreklamatazaileak ez duela segurtasunez baieztatzen istripuaren kausa; kontuan izanik erreklamatazaileak lekua ezagutzen duela eta baita bertako kondizioak ere; ikusirik erori dela esaten duen lekua ez dagoela jendea ibiltzeko baimendua, ondoan zebrabidea dagoelarik; ikusirik istripuaren eta zerbitzuarenb funtzionamenduaren arteko loturazko kausarik ez dagoela, eta erreklamatazailearen arduragabetasuna bera dela nolana ere leku ez egokitik igaro zelako gainera lekua eta honen egoera ezagutzen zituelarik, eta ikusirik espedientean agertzen diren aurrekariak eta txostenak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U



LEHENENGO.- Alberta Garbizu Fernández andreak aurkeztu erreklamazioa gaitzestea bere erorketa eta zerbitzuaren funtzionamenduaren artean ez dagoelako loturazko kausarik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

E) José Angel Recio Jaurena jaunak egin ondare erreklamazioa 2002ko azaroaren 25ean Arrandegi kaleak eta Terranovak egiten duten gurutzean bere ibilgailuak kalteak izan zituelako batxeagatik.

2002ko azaroaren 25ean Arrandegi kaleak eta Terranovak egiten duten gurutzean bere ibilgailuak kalteak izan zituelako batxeagatik **JOSE ANGEL RECIO JAURENA jaunak** egin erreklamazioari buruz esan erreklamatzailerak ez duela 2003ko urtarrila arte erreklamazioa aurkeztu.

Honelako datuekin ez dago gertatuak egiazkoak direla ondorioztaterik, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- JOSE ANGEL RECIO JAURENA jaunak aurkeztu erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri ionteresatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

F) Garikoitz Hernández Pueyo jaunak egin ondare-erreklamazioa 03-05-10ean jasandako istripua dela eta Marinelen igoeran SS-6233-AZ bere jabetzako ibilgailuak beste bat jo zuelarik zirkulazio-zentzu bikoitzez seinalizatutako kalean laranja koloreko jarraiko marrez.

Ikusirik **GARIKOITZ HERNANDEZ PUEYO jaunak** formulatu erreklamazioa 9308 BXZ matrikula duen bere jabetzako ibilgailuan izandako kalteak direla eta Marinelen Igoera kalera zihoala 2003ko maiatzaren 10ean, non adierazten duen ez dagoela zentzu bikoitzeko zirkulazio-seinalizaziorik, eta ikusirik Udaltzaingoak luzatutako txostena, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- **GARIKOITZ HERNANDEZ PUEYO jaunak** egin erreklamazioa gaitzestea kontuan izanik istripuaren egunean Marinelen Igoeran zirkulazio-zentzu bikoitza seinalizatu zegoelako marka bialekin, jarraiko marrez eta laranja kolorekoak, bi aldetako espaloien parte bana okupatuz, zirkulazioaren zentzu bikoitza erabat ikuskarri bilakatuz, aipatu kalean nahiz gora nahiz behera doazen ibilgailuentzat.



BIGARREN.- Akordioaren berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

G) Sergio Conde Fariña jaunak egindako erreklamazioa 8562 BNM matrikuladun bere jabetzako ibilgailuak Eskalantegi Oarso kalean izandako kalteengatik 2003ko ekainaren 3an galtzadan jarritako pibote batekin.

Ikusirik **Sergio Conde Fariña jaunak** formulatu erreklamazioa 8562 BNM matrikuladun bere jabetzako ibilgailuak Eskalantegi Oarso kalean izandako kalteengatik 2003ko ekainaren 3an galtzadan jarritako pibote batekin eta ikusirik Udaltzaingoak luzatu txostena, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- **SERGIO CONDE FARIÑA** jaunak formulatu erreklamazioa gaitzestea kontuan izanik pibotearen funtzioa hain zuzen ere erreklamatzailarena bezalako autoak espaloira igotzea galeraztea dela, zeren eta egia baita erreklamatzailak espaloia inbaditu zuela aparkatu eta Eskalantegi kaleko hipermerkatuan deskargatzerakoan, haxe baitio Udaltzaingoaren atestatuak.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

H) Imanol Cascante Pérez jaunak egin erreklamazioa SS-5094-BJ bere jabetzako ibilgailuan izandako kalteengatik 03-03-28an garabiak erretiratzen zuenean.

Ikusirik **IMANOL CASCANTE PEREZ jaunak** egin erreklamazioa non adierazten duen 2003ko martxoaren 28an SS-5094-BJ bere jabetzako ibilgailua garabiak erretiratu zuela eta jasotzea joan zenean lehendik ez zituen kalteak ikusi zizkiola, konponketa-lanak ordaintzea eskatzen duelarik; eta ikusirik Udaltzaingoak luzatu txostena, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- **IMANOL CASCANTE PEREZ** jaunak formulatu erreklamazioa gaitzestea kontuan izanik SS-5094-BJ bere jabetzako ibilgailuak garabiak jasotzean bazituelako jada erreklamatzaren dituen kalteak.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.



D) Frantzisko Redondo Luengo jaunak egin erreklamazioa Euskadi etorbidean 02-12-27an SS- 6979-BC matrikuladun bere jabetzako ibilgailuan edukiontzia eragindako kalteengatik.

Ikusirik FRANTZISKO REDONDO LUENGO jaunak formulatu erreklamazioa Euskadi etorbideko 5ean 2002ko abenduaren 27an ustez edukiontzien eragindako kalteak direla eta BELEN CAMPOS VILARIÑO andre lekukoak hala egiazaturik; ikusirik udal-garbiketako langilea etorri dela eta halaber Udaltzaingoaren txostenak non esaten den momentu hartan bertan zeuden Udaltzainak berak izan zirela edukiontzia beren lekuetan jarri zituztenak, eta ez garbiketako langilea, Campos andreak esaten duen bezala, eta ez zutela inolako kolperik ikusi ibilgailuetan, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- FRANTZISKO REDONDO LUENGO jaunak formulatu erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekursoekin.

- Gaizerrendatik at eta aurrez bertan sartzea bertako zinegotzietatik aho batez onarturik, ondorengo akordioak hartu dira:

9.- Ziklomotoeen zarataren aurka Udaltzaingoaren plana.

Ikusirik biztanleak gelditu gabe ari direla ziklomotoeren zarataz kezkatzen, bereziki Trintxerpen eta San Pedron, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

Udaltzaingoak egin dezala Udal Plan bat eskape librean zirkulatzen duten ziklomotoerek sortzen duten zarata konbatitzeko, baimendutako zaratak baino handiagoak produzitzen dituztelako, hainbat motatako neurriak jarritz, (pedagogikoak, zigortzaileak, ...) eta Udalak dituen mekanismo eta tresna juridikoak azter ditzala eta kasu balitz dagozkion modifikazioak egin.



Eta aztertzeko beste gairik ezean, 9:45etan batzarraldia amaitutzat eman da, hau guztia akta honetan jasoz, hau Alkate andreak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.